

AIURRI

BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



Talde-lanari saria, Kopa irabazita

Urnieta KE kadete mailako taldeak denboraldia borobildu zuen aurreko asteburuan, Kopako finala irabazita. Ziklo eder bati amaiera eman diote / 6

Haurren babes integrala aztergai Andoainen

Haurren babes integralari buruzko legea administrazioetan, eskoletan eta kirol-klubetan aztergai praktikan jartzea izango dute maiatzaren 23ko jardunaldian / 16



Saletxeberri Berriko bizilagunak "babe gabe" sentitzen dira, ur hornidura sarerik gabe / 2-3



Rajadok etxekoan aurrean garaipen ikusgarria lortu zuen, Adarra Trailean. Piñon, hirugarren / 8-9



Ostiralean, Herriartekoa Alegian, eta, larunbatean, Iturzaeta memoriale Sorabillan / 11

GALARRETA JAI ALAI | SARRERA 5€

ERREMONTARI
Sagardoaren biopelketa

MAIATZAK 23 ASTELEHENA | 18:00-TATIK AURRERA

• SETIEN • ANSA II • JUANENEA • ALDABE • LARRAÑAGA • BERRIZARTUA

• GOIKOETXEA V • BARRENETXEA IV • URRIZA • ZUBIRI • LARRA-GAÍN

ORIA MENDI | ERREMONTA BIZIRIK

ORIA MENDI | **ORONA**



Apirileko azken astean, pankartaz josita agertu zen Saletxeberri Berriko inguru guztia. AIURRI

Saletxeberri Berriko bizilagunak "babesik gabe" sentitzen dira

Andoain eta Urnieta artean, Goiburu auzora igotzeko bidegurutzean, Zelai tabernaren atzealdean kokatzen da Saletxeberri Berri. Etxebizitza multzo bat da Ergoien auzoan, eta bertako bizilagunen kexa agerikoa da. Pankartaz josi dituzte paretak eta leihoak

gitarako erabilera-eskaera egin zen, baita onartu ere. Gutxi iraun zuen egoera horrek, helegite baten ondorioz lizentzia lehen-go egoerara itzuli baitzen, bertako jabeen zoritxarrerako.

Egun, legeari dagokionez, hirugarren sektoreko erabilera (hotela, hostala, ostalaritza) izatera bideratutako eraikina da. Errealitatea, ordea, bestelakoa da. Egungo jabeek ezin dute bizigarritasun-baimenik izan, eta, ondorioz, Aiurrekin harremanetan jarri diren bi kideen esanetan, 2010an, ur-zerbitzua eten zuen Urnietako Udalak Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren epaia oinarri izanda.

Harrezkero, instalazio partikular batetik eskuratzen dute ura, baina ez da edangarria eta makina bat arazo izan dituzte dozena bat urtean. Izan ere, "xantaiak, hertsapenak, oztopoak, mehatxuak, ur-mozketak" pairatu dituzte eraikinaren ustezko kudeatzailearen aldetik, baieztatu dutenez. "Gutako batek harekin liskarra izaten bazuen, ura moztzen zigan", dio presidentek: "Ura ordainarazten zigan, edangarria ez den ura".

Nolanahi ere, eraikina legezkoa dela jakinarazi dute komunitateko buruek, eta hirigintza alorrean erabiltzen den hizkera erabilita, "kontsolidatutako" eremua da hori.

Errollda-agiria Arartekoaren bidez lortu dute

Oztopoak izan dituzte herrian bizitzeko. Esaterako, errollda-agiria eskuratzea ez da lan makala izan. Etxanizen lekukotza deigarria da: "Nire kasuan, zazpi urte egon nintzen erroldatu gabe bertan bizitzen, eta, Arartekoaren bidez, azkenean, lortu nuen nire jabetzakoa den etxebizitzan erroldatzea".

Eraikinak ofizialki duen lizentzia dela eta, ezin dituzte, gainerako urnietarren antzera, zergak ordaindu: ez Ondasun Higiezinaren gaineko zerga, ez zaborraren gaineko zerga, ez urarena. Kontraesankorra delakoan dira bizilagunak: "Zaborra botatzeko herritar-txartela daukagu, eta Berritu aldizkaria ere ailegatzat zaigu".

2020. urtean Saletxeberri Berri bizilagunen komunitatea osatu zuten. Gipuzkoako komunitateen erroldan erregistratuta daude ofizialki, NIF-IFZ zenbakia eta guzti. Eta lan eta lan ari dira,

Alba Cabrera, J.Ander Ubeda URNIETA Haserre daude Saletxeberri Berriko bizilagunak, "babesgabe-tasun-egoera" batean bizi direla sentitzen dute. Pankartaz josita esnatu zen apirilaren 29an Andoain eta Urnieta bitarteko biribilgunean, Xoxokara igoeran dagoen etxebizitza-blokea: "Edateko ur garbia denon eskubidea" edota "Saletxeberri legalizazioa ya" leloekin, besteak beste. Zer diote bizilagunek, baina?

2009. urtean sartu zen bizitzen bertan Javier Etxaniz komunitateko presidentea; 2017an, berriz, Victor Indart presidente-ordea. Azaldu dutenez, 35 apartamentuk osatzen dute eraikina, eta horietako zenbait hutsik daude, besteak beste, La Caixarenak diren hamazazpi. Gainerakoetan, bakarrik, bikotean edota familian bizi dira herritarrak. Beren pisuaren jabe dira bertan bizi diren hiru kide, eta besteek, bertan bizi ez diren jabeek alokairua ordaintzen diete.

Duela hogeitaz urte inguru erai-ki zen etxebizitza-multzoa, dirudenez, hirugarren sektoreko erabilera gisa. Ondoren, bizite-



Andoain eta Urnieta arteko mugan dago Saletxeberri Berri, Xoxokara igotzeko bidegurutzean. AIURRI

Oinarrizko premiak asetu ezinik

Inor gutxiren bistan igaro da oharkabeen Saletxeberri Berriko eraikina orain aste batzutatik hona. Pankartaz betea dago, bi hamarkada luzetan bizi izandako egoera salatzeko asmoz. Orain, gainera, arazoak areagotu zaizkie.

Edateko urik gabe

Bertako bizilagunek adierazi bezala, 2010. urtean,



Ur zerbitzua moztu zuten tokia.

ur-hornidura eten zuen Urnietako Udalak. Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren epaia bete zuen horrela. Urteak aurrera joan ahala, ordea, erosle eta bizilagun berriak hurbildu dira eraikinerantz. Eta ur-hornidura arazoak bere horretan dirau.

Hala, ur gabezia horri erantzuteko, instalazio partikular bat dute eraikinean duela hamabi urtetik hona. Ponpa baten bidez, akuifero batetik eskuratzen dute ura.

Hamabi urte daramatzate, beraz, sistema horrekin indarrean; alabaina, ur hori, gogorarazi dutenez, ez da edangarria, alegia, etxeko-lanetarako soilik darabilte, kare asko duelako. “Ez da mantentzerik egin; egoera tamalgarrian

EZ DUTE UR ZERBITZU PUBLIKORIK. EZ ZAIE UR EDANGARRIA IRISTEN

dago”, dio komunitateko presidenteak. “Apurtze dago, eta berria erosteak 15.000 euro kostatuko litzaiguke, gutxi gorabehera”. Aipatu beharra dago Urnietako Udalaren azpiegitura haraino iristen dela, alegia, ur-zerbitzua egon, badagoela, baina zementuzko bloke batekin moztuta dago.

Behin behineko irtenbide bat topatze aldera, orain, elektrogeno ekipo batekin daude. Horrela, egunean zortzi orduz ura izateko aukera daukate.

Oinezkoen ikuspegitik, irisgarritasunik gabe

“Zebra-bidea, noizko?”, dio pankartetako batek. Errepidez inguratuta dago Saletxeberri Berriko bizilagunen eraikina. “Zuzenguneetan ez dago abiadura murrizteko ezertxo ere, eta jendeak, igoera horretan, abiadura bizkortzen du”, azpimarratu du presidenteak.

beren espazioa bizigarriagoa izan dadin.

Presidenteak kontatu bezala, “inoiz jaso ez dituen mantentzerik egin dituzte eraikinean eta inguruetan. Bestalde, azpian zuten legez kanpoko omen zen tailerra –2015. urtearen bueltan ireki zen– itxi dute, baita bizi-

lagun guztien ordainketak eguneratu eta eraikineko uestezko kudeatzailearen arazoa konpondu ere: “Gizon horrek dirua iruzurrez atera du hemendik, eta Udala jakinaren gainean zegoen, baita Ertzaintza ere”.

“Inpotentzia handia” sentitzen dutela dio presidente-ordeak:

“Udal ur hornidura eta zergak ordaindu ahal izatea eskatzen dugu soilik. Ez diegu inporta”. Halaber, abokatu batekin dabilta harremanetan egoerari irtenbidea bilatzeko asmoz. Horren aurrean, presidenteak gehitu du Udalak duela egoerak hobera egiteko ahalmena.



“XVI. Urnietan Dantzan” jaialdia larunbatean ospatuko da, hilaren 28an. AIURRI

Maiatzaren 27tik 29ra Gazte Festak Urnietan

Urnietako Udalak aurtengo egitarauaren berri eman du. Ekitaldiz beteriko asteburua izango da maiatzeko azkena

Erredakzioa URNIETA

Ekitaldiz beteriko asteburua izango da maiatzeko azkena.

12:00 Poteoa, Poxta Zaharrek antolatuta.

14:00 Herri bazkaria Idiazabal kalean.

16:30-17:30 Eskolarteko txirringularitza proba Idiazabal kalean.

17:00 III. Urnieta Warrior oztopo proba San Joan plazan.

17:30 RocKalean elektro-txaranga, Idiazabal Kaletik.

22:30-03:00 DJak Idiazabal kalean.

23:30 Extopa, Estoparen ome-nezko kontzertua.

Maiatzak 27, ostirala

17:00-18:30 Bubble saioa Egapen, Gaztelekuak antolatuta.

18:00-20:00 Etxeberri Plazan, Elvi sabeliztuna. Ondoren kontzertua: Sara Grajal & Pj Kahuna. Etxeberri Plazako Auzokideen elkarteak edari eta musika postua jarriko du.

19:00 Kantazaun Etxeberri Plazatik.

19:00 Herriko buruhandi eta erraldoien kalejira Plazido Muxika plazatik, Bosko Anitz txarangarekin.

20:00 Jaiei hasiera emateko txupinazoa, Jai Batzordeko ordezkarien eskutik. Ondoren, Egape dantza taldearen emanaldia.

21:00 Bosko Anitz txarangaren kalejira, San Joan plazatik.

21:00 Afari tematikoa: Gau Hawaierria.

23:00-02:00 Alargun Beltzak elektro-txaranga.

Maiatzak 28, larunbata

10:00 Diana, Txanbolin txistulari bandarekin.

11:00-12:30 “XVI. Urnietan Dantzan” jaialdia. Saioak Idiazabal kalea, Etxeberri plaza eta beste hainbat herriko plaza eta kaletatik zehar. Dantzari txikien saio berezia San Juan plazan. Emanaldi nagusia Plazido Muxika plazan.

Maiatzak 29, igandea

09:00-10:00 Antonio Gabirondo Memoriala Oiartzungo tiro zelaian, Santa Kruz Elkar-teak antolatuta.

10:00 Diana.

11:00-13:00 Ekojolasak Egapen.

11:00-13:30 Antzara Jokoa Egapen.

12:30 San Joan Plazan Txanbolin emanaldia.

16:00-18:00 Ekojolasak Egapen. Puzgarriak eta jokoak.

17:00-21:00 Photocall-a eta edari, litxarrerria zein musika postua San Juan plazan.

17:00-18:00 Erraldoi eta buruhandien kalejira San Joan plazatik.

18:00-20:00 Dantzaldia zuzeneko musikarekin Plazido Muxika plazan.

18:30 San Joan plazan Kale Antzerkia: “Panoli Kabareta”.

19:30 Super Zumba.


21:00 Jaiaren amaiera.

Trafikoa etenda Idiazabal kalean

Larunbatean 11:00etan hasita eta igande goizalderarte.

KOMIKIA

GARBIÑE UBEDA MARRAZKILARIA



POSTONTZIA

SANTA KRUTZ FESTETAKO JAI BATZORDEA ANDOAIN

Santa Krutz jaietako balorazioa

Lehenik eta behin, eskerrak eman nahi dizkizuegu hain bereziak izan diren aurtengoak bezalako Santakrutzak gauzatzeko laguntzen aritu zareten guztioi, eragile eta boluntario, festazale, bizilagun edo era batera edo bestera zerbaiteko antolakuntza eta festen parte izan zareten guztioi. Zuek gabe hau aurrera eramatea ezinezkoa da. Hala ere, Santa Krutz Jai Batzordetik 2022ko festetako balorazio-bilera egin ondoren, honako puntu hauek azpimarratu nahiko genituzke:

- Festen balorazio positiboa. Bi urteren ostean, jaiak ondo ospatu dira, giro onean eta ekintza aukera zabalarekin. Festetan egon den giro ona eta iskanbila



edo liskar eza azpimarratu nahi dugu, Jai batzordetik bultzatu nahi diren baloreekin (euskara, berdintasuna, feminismoa, errespetua...) bat etorritz. Era berean, jendearen parte-hartzea txalotu nahi dugu, festak kalera

eramanez eta sekulako giroa sortuz.

- Diru partidaren egunerapen falta. Behin baino gehiagotan aipatu dugu eta nahiz eta festetako antolakuntza eta ekintza batzuk bolondresak izan, ia denak dauka gastu bat eta

azken urte eta hilabeteetan bizi dugun egoerak eta, prezio igoerak ez badira partidaren igoera batean isladatzen, festetako aukera, emanaldi edo ekintza kopurua gutxitu beharrean egongo gara jaietako aurrekontua bete ahal izateko.

- Jai batzordearen berritze-prozesua eta elkarlana. Urteak aurrera doaz, eta Jai Batzordea berritze prozesu batean dago sartuta azken urteetan. Bertan parte hartzeko aukera irekia da eta edonor gerturatu daiteke antolakuntzan parte hartzera. Talde honek aurrera eta berritzen jarraitzeko beharrari daukan garrantzia eman nahi diogu, Santakrutzak bizirik jarrai dezaten gu

guztion laguntza beharrezkoa baita. Era berean, festetan zerbait independentea antolatu nahiko balu norbaitek, lehenago Jai Batzordearekin hitz egitea eskatu nahi diogu, inongo programazio arazorik suerta ez dadin. Amaitzeko, pasatako

inkestan (200 erantzunetik gora) hainbat eta hainbat proposamen eta ideia irakurri ondoren, festak hobetzen jarraitzeko konpromisoa adierazi nahi dugu. Antolakuntzatik ikusten ez diren eta hobetzeko dauden gauzen gainean zuen iritzia jakitea beharrezkoa ikusten dugu. Aurten bai, aurten indar handiagoarekin itzuli garela esan dezakegu. Datorren urterarte eta gora Santakrutzak!

AIURRI
BETERRI-BURUNTZAKO ASTEKARIA



www.aiurri.eus

Aiurri eskuragarri:
Ebeiz ebeko harpidetza-sistema. Andoainen urte osoko harpidetza-saria 40 eurokoa da. Urrietan, 32 euro. Ale batzuk eskuragarri kiosko eta merkatalgunetan.

Egoitza Orokorra:
Arantzibia plaza, 4/5-behea. 20140, Andoain. Tel.: 943 300 732. andoain@aiurri.eus www.aiurri.eus @aiurri

Zuzendaria: Jon Ander Ubeda.

Erredaktoreak: Xabier Lasa, Mikel Arberas, Alba Cabrera Jauregi, Andoni Urbistondo.

Maketatzailea: Maddi Trubuelo.

Kudeaketa, harpidetza:
Garbiñe Ugarte Mendia. idazkaritza@aiurri.eus

Publizitatea: Fer Irazu. publizitatea@aiurri.eus

Banatzaleak: Rocio Arias (Andoain), Axun Jauregi, J.Mari Sagaseta (Urdieta).

Diseinua: Golena Komunikazio Taldea.

Zorion agurrak, merkatu txikia:
diseinua@aiurri.eus | www.aiurri.eus. Whatsapp-a: 619 163 537.

Lege Gordailua: SS-1078/04.

ISSN: 1698-4870.

Tirada: 4.000 ale.

Inprimategia: Zeroa Multimedia.

EKOIZLEA:



ALIATUAK:



BI UDALERRIEN BABESAREKIN ARGITARATZEN DA:



DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENEA:



ZIURTAGIRIA:



BABESLEAK:

Aiurriko harpidedunak
ezinbestekoak dira.



andoaINDARRA
euskaraz



IRITZIA

ANDONI URBISTONDO URNIETA

Andiamo!

Ba goaz. Liturgia ezaguna. Urte batean ez bada, hurrengoan bai. Iaz, muga-mugan, pandemiarekin posible ote zen, ez... Han izan ginen. Aurtan, pandemiako mugak ahaztuta, itzuliko gara. Astebete. Bi herri, Bormio eta Cortina d'Ampezzo. Lau lagun. Mikel lankidea alboan berriro. Landista sutsua. Erotuko da Murgiakoak Giroa irabazten badu Marmoladan. Eta UZE Urnietako zikloturista taldeko bi lagun on. Bi aiton. Edu eta Patxi. Mende erdia bete dutela-eta, opari bat egin nahi zioten beren buruari, eta Dolomitak ezagutzea baino amets hoberik ez.

Eguraldia baino beroago daude. Stelvio, Gavia, Mortirolo, Marmolada, Tre Cime di Lavaredo... Dena igo nahi dute. Eta neu planak izorratzen: 'Piano, piano, cazzo...'. Eguraldiak agintzen

du 3.000 metroko menditzarren eremuan, eta hanka zuztarrek. 20 kilometroko mendateak ez dira broma.

Kontatuko ditugu gure abenturak agerkari honetan. Umore kutsuarekin, ahal bada. Eta animatuko ditugu Landa, Pello, Oier Lazkano eta Castro euskal herritarrak, eta beste guztiak, ikurrina haizatzen dugula. Squallo marrazoa ere bai, nola ez, Nibali Giroan ikusiko dugun azken aukeran. Eta Dolomitetara joateko gonbitea egingo dizuegu. Paraje haien pareko gutxi baitaude munduan, bakarren bat baldin badago. Bizikleta eta mendia gustuko badituzu, joango zara. Ikusiko dituzu mendiak, mendateak, Giroa, eta esango duzu, totalka: 'Mamma mia', edo 'Dio', italiarra bazina bezala. Arimaz hala baikara maiatza bukaeretan. Andiamo!



Andoni eta Mikel. URBISTONDO



Cortina de d'Ampezzo. URBISTONDO

POSTONTZIA

LAB BETERRI-AIZTONDO

Langile borrokaz lortzen dira eskubideak

22 egun greban egon ondoren, Irizar e-mobility-ko enpresa batzordeak enpresa ituna sinatu du zuzendaritzarekin. Hori horrela, greba mugagabea bertan behera utzi eta lanera itzuliko gara. Firmatu dugun itunak nabarmen hobetzen dizkigu lan-baldintzak. Itun hori ez litzateke posible izango greban egon garen 180 langile guztion konpromiso eta borrokarik gabe. Ezin ahaztu ere eragile sozial eta politikoko ezberdinek erakutsi diguten babesa. Argi geratu da, beste behin ere, langile borrokaz lortzen direla langileon eskubideak eta greba egiteak merezi izaten duela.



Elkarretaratzea Andoainen. LAB

POSTONTZIA

EH BILDU URNIETA

10 urte eta gero.... MIPB edo PERCO-ak geniona dio

Urnietako EH Bilduk garbi ditu eman beharreko pausoak, betiere merkatariarekin hartu-eman konstantean:

1. Merkataritzan eman diren azken obra-baimenak 8 hilabete kosta dira. Udalak ezin du negozioen eguneraketa eta irekieran oztupo izan. Prozesuak arindu behar dituzte.
2. Urnietako udal gobernu taldeak komunikazio arduraduna du liberazio osoan, Merkataritzaren Udalerrriaren zutabe izanik, esfortzu berezia egin beharko luke merkataritzaren berpiztean: App-an gunea gaituz, merkatariak beraien eskaintzak jarri ahal izateko. Web orrian egiazko gunea bat, merkatariak beren presentzia izan dezaten. Berritu aldizkarian zutabe bat, merkatarien eskura.
3. Urnietako merkataritzaren datu base eguneratua non udaletxeko laguntzen berri emanen zaion bertan izenpetu nahi duen orori.
4. Merkataritzan aditua den dinamizatzailea. Berak aztertuko ditu merkatarien beharrak, eta bideratu soluzioak.

5. Jubilatzeke gutxi falta eta oinordekotzarik izango ez duten negozioekin hitz egin eta Beterri-Buruntza mankomunitatearekin elkarlanean, haien jarraipena landu, langabeziaren onuran eta merkataritzaren iraupenaren onuran.
6. Betegarriak diren eta bizikidetzarekin oreka puskatuko ez duten ordenantzak jarri.
7. Merkatariak apartakalekuak erraztu.
8. Azoka bizi bat, herrian merkatu gunea suspertuz. Honek gainera, herriaren izaera ere indartuko luke, herriarren herri sena berpiztuz.
9. Merkataritzari egokitzen zaion aurrekontuen partidak erabilia izan behar du, zentzuz, merkataritzaren suspertzeko eta herria herri izan dadin.

Hori guztia betetzeko, merkatari mahaia deituko genuke eta egutegi batean egikaritze epeak determinatuko genituzke, garbi adostuz mugarriak.



Urnietako
udala





Altamira, Ordizian, jokatu zen finala Ilintxaren aurka. 3-3 nagusitu ziren urnietarrak. Argazkian, taldekideak, koparekin. UKE

Azken urteetan egindako lana borobildu dute

FUTBOLA Kadete taldean adiskidetasun handia sortu da, urteotan. Denboraldia eta kadete mailako esperientzia ederki borobildu dute, kirolean oso gutxitan gertatzen den loria eskuratuz. Talde izaera giltzarria izan da Kopa irabazteko garaian



Urnietako eta Ilintxako kideek elkarrekin argazkia atera zuten, partida jokatu ostean. UKE

Pablo de Torres URNIETA

Gipuzkoako Kadete mailako Kopa eskuratu berri du Urnietako Kirol Elkarteko emakumezkoen taldeak, iragan larunbatean jokaturako finalean, Ilintxa (Legazpia), 3-0 garaitu ostean. Eguerdiko 12:00etan izan zen hitzordua, hain justu ere, Ordiziako Altamira zelaian. Bi taldeetako makina bat zalez beterik zeuden harmailak, eta hiru arbitrok epaitu zuten jokoa, finala baitzen. Norgehiagoka hasi eta berehala sartu zuten gorritxoek lehen gola, Juneren eskutik. Hala, Ilintxak bere lerroak aurreratu eta, ondorioz, nagusitasuna erakutsi zuen. Halere, denborak aurrera egin ahala, oso partida berdindua izan zen, desorekarik gabekoa.

Bigarren zatiari ekin eta gutxira, Leyre HolgadoK sartu zuen UKErren bigarren gola, jokaldi eder baten ondotik. Azkenik, Nora Navarrok ipini zion pastelari ginga; bere eskarmen-tu baliotsuarekin, golean amaitu zuen Ilintxako taldearen atera egindako jaurtiketak. Ez ziren bakarrik egon, urnietar asko joan baitziren Ordiziara beren taldea animatzera. Giro ona izan zen nagusi zela berruan, baita kanpoan ere, naturaltasun handiko lehiakortasunarekin.

Jokalariai dira protagonistak eta garaipena nola bizi duten galdetu diegu.

Protagonisten adierazpenak

- Nora Navarro: "Talde guztiak batera merezi genuen azken dantza".
- Aloña De Torres: "Denboraldi osoan egindako lanaren emaitza da, baita taldearen batasunaren eta elkarlanaren isla ere".
- Leyre Holgado: "Azkenean, merezitakoa lortu dugu, elkarrekin gauden azken urteari amaiera ona emateko".
- Lide San Sebastian: "Sortu dugun familia eta ekipoaren erakusgaia".
- Oihana Arrue: "Kopa irabaztea gakoa izan da amaiera ahalik eta modurik onenean emateko denboraldi osoan pixkanaka eraiki dugun familia puskari".
- Iñtza Manterola: "Urte hauek elkarrekin lanean egon eta gero, merezita geneukan kopa irabaztea".
- Nahia Hernandez: "Kopa honek erakutsi dit taldean dena dela posible".
- Leire Perez: "Hilabeteetako lanaren ondoren, eman genie-zaiokeen amaierarik hobere-na".
- Eneritz Usarralde: "Familia batek merezi duen saria".
- Nerea del Castillo: "Merezi duguna, azkenean, lortzea".
- Laida Egaña: "Bizitza guztian amets bat izan dena, egi bihurtzea".
- Ane Martinez: "Denboraldia ondo bukatzeko merezi izan dugun oparirik hobere-na".
- Nora Agirre: "Elkartuta zegoen talde bat familia bihurtzea".
- David Cuenca: "Kontzeptu futbolistikoek bezala, talde-lanak, baturak eta batasunak ere garrantzi handia dutela erakusteko modua izan da. Taldeak duen indarra erakusteko modurik hobere-na".
- Beñat Lizaso: "Azken bi urteetako lanari bukaera bikaina eman diogu. Urte gogorra izan da, hainbat faktorek bidea zaildu digute. Garaipena taldearen batasunaren eta indarraren emaitza da".
- Aimar Lizaso: "Familia puskaezin baten azken ordainsaria".

"ELKARTUTA ZEGOEN TALDE BAT FAMILIA BIHURTU DA"

NORA AGIRRE, JOKALARIA



Gravel estiloko Andoaingo zenbait bizikleta zale. GOIKOETXEA

Xabier Lasa ANDOAIN

Ezaugarri bereziak dituen bizikleta du oinarri estilo berri horrek: errepideko bizikleten eskuleku edo manillarra, gurpilak haienak baino zabalagoak, kuadroa arina... Azken urtetan bizikletari lotuta garatu den teknologiaz baliatzen da, dinamika arina eta azkarra lortzeko; azken batean, mendiko eta errepideko bizikleten arteko nahasketa moduko batuketa lortzeko.

Egokia da asfaltoarekin nekatu ostean, naturan barrena pista ahalik eta lauenetatik ibiltzea gogoko duten txirrindularientzat. Besteak beste, distantzia luzeak pardel askorik gainean hartu gabe bidaiatu nahi duten kirolarientzat. Horrela, filosofia bereziarekin lotzen da Gravel bizikleta: abenturazaletasunarekin, buruaskitasunarekin, erronka pertsonalarekin, tokian

Gravel estiloko zaleen topaketa

TXIRRINDULARITZA Gravel Topaketa antolatu dute larunbaterako, Andoainen. Bizikletan ibiltzeko modalitate edo estilo berri batek hartzen du Gravel izena. Hazten ari da kirolarien kopurua azken urtetan, eta zaletuei begira antolatu dute topaketa

tokiko natura nahiz giza-inguruaz gozatzearekin... Halaber, zenbait ezaugarri eskatzen dizkio erabiltzaileari: baldintza fisiko egokiak, orientazioko irizpideen jabe izatea, bizikletaren gutxieneko mekanika menperatzea...

Topaketa, lau eremu natural batuz

Gravel estiloa maite duten zenbait andoaindar batu dira azken aldian, eta topaketa antolatzaera animatu dira. Horretarako, 250 kilometroko ibilbidea diseinatu

dute, eta LABA izena jarri diote ibilbideari, zeharkatuko dituen lau bailara edo parke naturalen izenekin akronimoa osatuz; hots, Leitzaran, Artikutza, Bidasoa eta Aralar. Larunbatean dute hitzordua Andoainen.

Paraje zoragarriak izateaz gain, lau naturguneetan bada elementu amankomuna: beren eremuan trenbide zaharren pistak aurkitzen dira.

Topaketarako 50 bat lagunek eman dute izena, eta Euskal Herriko bazter askotatik datoz. Zumea plazan, larunbat goizaldean, 04:30ean jarri dute hitzordua. Arruti gozotegian kafea hartu, eta 05:00etan Leitzaran aldera abiatuko dira. Otieta bitarte, denak elkarrekin joango dira; hortik aurrera, abilitatea libre! Parte-hartzaileek dakiten bakarra, oraingoz, zein lau bailara edo parke zeharkatuko dituzten da. Egunean bertan, orduan jarriko zaie eskura GPS bidezko ibilbidearen tracka.

Ez da lehiaketa moduan planteatu eta ez da sailkapenik izango, ezta saririk banatuko ere; nor bere erritmoa eramango du, nor bere jakiak gainean...

Esperimentu gisa antolatu dute Topaketa. Gravel-aren atzean dagoen filosofiarekin bat egiten lagunak biltzea dute xede, batik bat.

Lehenbizikoei, ibilbide osoa 12 bat ordutan egin ahal izango dutela iragarri dute antolatzaileek. Hortik aurrera, 17-19 ordu egin ditzakete azkenekoei.

Antolaketa, auzolanean

Gavel zaleen topaketa auzolanean antolatu da, eta horretarako premiazkoa izan da hogeitabat lagun boluntarioen parte-hartzea. Proba aurreko astetan xehetasun guztiak lotzen aritu dira, eta, larunbatean, egun osoan, irteeran eta helmugan ere bertan izango dira lanean.

Parte-hartzaileak, kirol ekipamendua ekoizten duen Alkain anaien Zaiklin enpresak egingako jantziarekin irtengo dira.



egunean
behin

• **Denboraldi berria, datorren irailean hasita.**

• **Uda eta gero "Aiurri" taldea prest izango da.**



Asier Rajado andoaindarrak nagusitu zen lehen Adarra Trail lasterketan. AIURRI

Garaipen handia eta herrikideen aurrean, Adarra Trail lasterketan

MENDI LASTERKETAK Goikoplazan hasi eta amaitu zen lehen edizioa, bero handiarekin igaro zena. Andoaindarrak nabarmendu ziren espero baino partaidetza txikiagoa izan zuen lasterketan. Helmugan korrikalariak kexu ziren, Besabi igarota galduta ibili zirelako

Jon Ander Ubeda ANDOAIN

Urnietako San Juan plazatik abiatuta edota Andoaingo Goikoplazatik abiatuta, aldea egongo da. Baina gutxienezkoa abiapuntua da, Urnietako Mendi

Lasterketan eta Adarra Trail lasterketan gako Adarramendin eta inguruetan baitzegoen. Parte hartzeko nahiz ikusle bezala hurbiltzeko paraje zoragarria da. Bi lasterketen abiapuntuen

artean hamar urteko aldea dago. Bat aurten jarri da martxan, eta bestea desagertu zen. Adarra Trailen aroa bizi dugu, eta lehen edizioaren iragarpenak ikusmin handia piztu zuen Andoainen

zein Urnietan. Igandean, ordea, partaidetza uste baino apalagoa izan zen. Ez ziren 350 lasterkari izatera gerturatu, eta helmuga 155 lagunek baino ez zuten zapaldu. Bakarren bat bidean geratu bazen ere, irteeran 200 lagun izatera ez ziren iritsi. Lasterketak jarraipena izan behar badu, zer hobetua izango dute antolatzaileek. Igandean aurrealdean iritsi ziren lasterkari guztiak kexu agertu ziren helmugan. Besabi igaro eta gutxira seinalizaziorik ez eta galduta ibili ziren korrikalariak. Denbora eta sailkapen ona egin nahi duenarentzat ez dira batere atseginak horrelako ezuteskoak jasotzea.

Izan ziren ere helmugara iriste hutsa garaipen modura hartu zutenak. Horientzat parte hartzea eta helmugaratzea ospakizun bilakatu ziren.

Podiuma

Mutlak:

1. Asier Rajado 1:41:06
2. Julen Fernandez 1:44:23
3. Ivan Piñon 1:45:26

Neskek:

1. Oihana Zubillaga 2:00:33
2. Maialen S. Sebastian 2:00:42
3. Eztizen Duque 2:01:09


Irabazleen adierazpenak helmugan



ASIER RAJADO
IRABAZLEA

"Herrian bertan irabaztea berezia da"

"Hasieratik aurrealdean joan naiz, bigarren postuan. Seigarren kilometroan aurrea hartu dut eta helmugaraino bakarrik ibili naiz. Ondo ibili naiz, baina beroarekin sufritzen. Hidratatzea da gakoa. Mendi erronka prestatzen ari naiz, eta Adarra Trail niretzat oso *explosiboa* da oraintxe bertan. Herrian bertan irabaztea berezia da, hori lortu nahi nuen. Partaideak ikusita posible izan zitekeela ikusi nuen. Pozik nago".



OIHANA ZUBILLAGA
IRABAZLEA

"Bigarren sailkatua estu-estu nuen segika"

"Pozik nago, ez baita nire baldintzatara ondoen egokitzen den lasterketa. Baina emaitzarekin pozik nago. Bero ikaragarria izan dugu, eta ez da nire bidelagunik onena beroa. Baina edaten eta jaten ikasten ari gara, eta geroz eta hobeto moldatzen naiz. Atsedean hartu behar izan dut helmugara iristean, bigarren sailkatua gertu-gertu nuelako. Dena emanda iritsi naiz, eta azkenereko erdi mareatuta amaitu dut".



Oihana Zubillaga anoetarra, helmugara iristean. AIURRI



Axier Etcheberria andoaindarra lehen postuetan helmugaratu zen. AIURRI



Barrenetxea IV. ORIAMENDI

Emozio handiko partida, Galarretan

ERREMONTEA Ansak eta Barrenetxeak Urriza eta Azpiroren aurka partida ikusgarria irabazi zuten

Erredakzioa ANDOAIN

Ansa II.ak eta Barrenetxea IV.ak 40-38 irabazi zieten Urriza eta Azpirozi maila handiko partidan. Lauak ikusgarri aritu ziren, eta ordu eta, erdiko borroka baten ondoren. 40-38koa izan zen azken emaitza. Azpimarratzekoa da Urrizak eta Barrenetxeak jokatu zuten partida, baina Ansak ez zuen hutsik egin eta erasoan eta defentsan oso ondo aritu zen. Azpirozek ez zuen ia huts egin partida osoan eta errebote bakarra galdu zuen. Gainerakoan, behin baino gehiagotan altxatu ziren zaleak eserlekuetatik.

Maiatzak 21, larunbata 16:30, Galarreta Jai Alai

1. partida, 35 tantora:
Susperregi-Martiarena / Urrutia II-Odei.
2. partida, 40 tantora:
Segurola-Barrenetxea IV / Ansa II-Azpiroz.
3. partida, 35 tantora:
Etxarri-Zubiri / Loitegi-Labaka.

Maiatzak 23, astelehena 18:00, Galarreta Jai Alai

Ansa II-Juanenea / Aldabe-Larrañaga.
Goikoetxea V-
Barrenetxea IV / Urriza-Zubiri.



Iñaki Arruti eta Josu Arabaolaza, helmugara iristean. AIURRI



Iker Ipintza gaztea, lasterkari gehiagorekin batera, Adarran gora. AIURRI



Urtebetetzea ospatu zuen Leire Elolak, helmugara iristean. AIURRI



Maldan gora ikusleen animoak jaso zituzten korrikalariak. AIURRI

ARGAZKIAK, BIDEOAK AIURRI.EUS | ADARRA TRAIL





PONCE

Estatu mailako txapelkun-orde

PALA Koldo Ponce andoaindarra 22 urtez azpiko estatu mailako txapelketako finaleraino iritsi zen, pala motzean. Ponce eta Zumetako Errealaren izenean jokatu zuten. Ezin izan zuten Mendizabal-Gonzalo bikote nafarra gainditu; lehen setean 11-15 galdu zuten eta, bigarrenetan, 13-15.



PELONTXU

Bigarren lasterketa, Valentzian

MOTORRA Beñat Fernandez *Pelontxuk* denboraldia abiatu zuen maiatzaren 8ko asteburuan, Estorilen. Ez zen uste bezain ondo ibili, arazo mekanikoak tarteko. Azken lasterketan aritzeko aukerak galdu zituen, Portugal aldean. Bigarren lasterketan lehen probako sentsazio txar horiek gainetik kentzeko aukera izango du, asteburu honetan.



Henriksen. ALMITZA

Henriksen eta Gabirondo, Euskal Herriko txapelketan

SEGA Bakarkako Sega Ligaren lehen kanporaketa jokatu zen Basaburuako Udabe herrian

Erredakzioa ANDOAIN Almitza sega elkarteak antolatutako txapelketan Malou Henriksen andoaindarra bigarren sailkatu zen, Alaitz Imazen atzetik. Gizonezkoetan, berriz, Julen Gabirondo urnietarra laugarren izan zen, Jon Otegi, Mikel Lizartza eta Miel Mari Jauregi *Altzo*-ren ondoren.



Gabirondo. ALMITZA



Mikel Legarreta. KRONIKA



Ainhoa Jauregi. KRONIKA

Urnietarrak aurrealdean Ereñotzuko mendi lasterketan

MENDI LASTERKETAK Eguzkia eta beroa nagusitu ziren Ereñotzuko ibilbide gogorrari aurre egiteko

Erredakzioa ANDOAIN Beroak baldintzaturiko proba izan zen, eta, hala eta guztiz ere, ehundik gora lasterkari iritsi zen helmugara. Nerea Amilibia nagusitu zen emakumezkoetan eta Hodei Lujanbio gizonezkoetan. Beterri-Buruntzako partaide ugari izan zen lasterketan. Ainhoa Jauregi urnietarra hirugarren postuan sailkatu zen, emakumezkoetan. Haritz Zubillaga urnietar-zizurkildarra 7. helmugaratu zen, eta lehen postuetan iritsi ziren eskarmen-tu handiko bi urnietar: Mikel Legarreta (10) eta Mikel Costas

(11). Igor Aldasorok (22) ere lasterketan parte hartu zuen. Baita Nagore Arizagak ere. Andoaindarra laugarren emakumea izan zen helmugan. Probako aurkezle lanetan ere urnietar bat izan zen: Ainara de Miguel.

Zegama-Aizkorri, hilaren 29an 2022ko maiatzaren 29an egingo da, baina ez da izena emateko eperik zabalduko. 2020an inskribatu zirenei lehentasuna ematea erabaki dute antolatzaileek. Zuzenean EITBn ikusi ahal izango da eta Jokin Lizeaga ariko da esatari modura.



UKE

Leizaran-Urnieta asteburuan

ESKUBALOIA Denboraldiko azken partida garrantzitsua izango da senior mailako bi taldeentzat. Urnieta Quel Abogados taldeak hirugarren postua lortzea du helburu, eta horretarako Allurralden irabazi behar du. Aldiz, Leizaran taldeak irabazi behar, ligako lehen postua lortu nahi badu. Une honetan bigarren postuan dago, Ereintza liderrarekiko puntu bakarrera.



ITALIAKO GIROA

AIURRI.EUS





LEIZARAN

Finala, igandean Artalekun

ESKUBALOIA Denboraldi bikaina egiten ari da Leizaran Ernio Inmobiliaria taldea. Igoera lortu eta gero, Kopako ligaxkari ekin zioten. 6tik 6 partida irabazi dituzte eta igande honetan Artalekun jokatu dute finala Txingudi Goser taldearen aurka. Klubak animatzeko deia egin du: "Zaletuei igandean 12:00tan Irungo Artalekura animatzera joateko gonbidatu nahi diegu".



Andoain herriko ordezkariek, aurreko ostiralean. AIURRI

Final laurdenetarako txartela eskura du Andoain herriak

HERRIARTEKOA Ostiral honetan Alegiako frontoian jokatu dute. Joanekean Andoain 2-1 nagusitu zen

Erredakzioa ANDOAIN

Andoainek hiru partidetatik bi irabazi zituen Alegiren aurka, final zortzirenetako joaneke saioan. Lehen partida Beñat Salvador eta Eneko Uria kadeteek jokatu zuten. Erraza zirudien arren, 22-19 amaitu zen.

Bigarren partida Eneko Beloki eta Julen Gaztañaga jubenilek jokatu zuten. Partida honetan ere hutsegitea eta tanto motzak nagusi (22-16).

Azken partida, Imanol Usandizaga eta Aritz Eskudero seniorrek jokatu zuten, baina aurkariak nabarmenki gailendu

ziren (5-22). Emaitzak ez du islatzen partidaren gogortasuna, izan ere, Usandizagak lan handia eta bikaina egin zuen defentsan, ia norgehiagoka guztia ezker eskuarekin. Eskudero, aldiz, tanto eder pare bat egin zituen lehen koadroetan.

Itzulikoa, ostiralean, 19:00tan

Ostiral honetan Alegian ariko dira, eta, sailkatuz gero, final laurdenetan Hernani zain izango dute andoaindarrek.

- Kadeteak: Uria-Salvador.
- Jubenilak: Beroz-Beloki.
- Nagusiak: Eskudero-Usandizaga.

Andoainek Oiartzun garaitu du palan

PALA Herriartekoan, Andoainek aurrera egin du Oiartzuni seitek bost partida irabazita

Gazteleku Pilota Elkartea ANDOAIN

Joanekean etxetik kanpo 1-2 irabazi ondoren, etxean errematea eman ziotek 3-0 irabazita. Banaka frontoi osoan Josu Echeverriak 20-9 menderatu zuen Gorka Mitxelena. Mitxelenak min hartu zuen partida hasieran eta ezin izan zion partidari eutsi, azkar puskatu zen. Bigarren partidari, binakakoan, Xabier Alcorta eta Imanol Borrerok 20-7 mendean hartu zuten Belamendia-Arzallus bikotea. Oso seguru jokatu zuten eta oiartzuarrek ezin izan zuten ezer egin. Azken partidari, Julen Loidik, joaneke partidari bezala, Antton Aranbururen kontra jokatu zuen eta emaitza ona lortu zuen: 20-7. Nagusi izan zen hasieratik eta oiartzuarrek asko borrokatu bazuen ere, ezin izan zion andoaindarraren jokoari aurre egin.

Hurrengo fasean Astigarraga izango dute aurkari.



Estebe-Tena gorritz, Peñalvo-Landa urdinez. Gorriak nagusitu ziren: 25-8. AIURRI

Iturzaeta memorialak aurrera darrai Sorabillako frontoian

PALA Hamaika partida jokatu dira larunbat honetan, eta azken hiru galtzaile onenak ere sailkatuko dira

Erredakzioa ANDOAIN

28 gizonetako bikoteraren parte hartzearekin abiatu da aurtengo txapelketa. Hirugarren jardunaldian emakumezkoak ere lehiari murgilduko dira. Eguraldi ona iragarrita dagoenez, Sorabillara hurbiltzea plan polita izango da. Herrikide eta ezagun ugari ariko dira lehiari.

Maiatzak 21, larunbata

09:30 Esti-Rakel/Irati-Naiara
09:50 Irati-Naiara/Edurne-Amaia
10:10 Edurne-Amaia/Esti-Rakel
10:30 Setien-I-II/Irigoyen-I-II
11:00 Loidi-I-II/Mendizabal-Sanchez

11:30 Gaztaña.-Ipintza/Agirre-Sag.
12:00 Otamen.-Urtzi/Unai-Tronko.
16:30 Arruti-Beloki/Arbe.-Muji.
17:00 Arrieta-Egibar/Guti.-Leku.
17:30 Amon.-Javi/Xabat-Balardi.
18:00 Ponce-Alkorta/Torre-Herra.
18:30 Estebe-Tena/Berrobi-Belaun.
19:00 Elix.-Alaine/Neide-Enara.
19:30 Andoni-Arruti/Setien-Urru.

SORABILLARA HURBILTZEA PLAN POLITA DA, EGURALDI ETA GIRO ONA ZIURTATUTA BAITAUDE



EUSKALDUNA

Azken partida, asteburu honetan

FUTBOLA Infantil mailan, Euskaldunaren eta Urnieta Keren arteko partida jokatu zen aurreko asteburuan. Andoaindarrak nagusitu ziren Allurralde zelaian, 2-0ko emaitzarekin. Beste talde gehienek bezala, asteburu honetan agur esango diote denboraldiari.

Urriñek Aloña Mendiren aurka jokatu dute azken partida, Oñatin. 11:30ean hasiko da partida, igandean. Urnietarrak etxean bertan ariko dira Mutrikuren aurka larunbat honetan, eguerdiko 13:00tan hasita.



Aiert Beobide koreografoa TTAPentzat eskaintako elkarriketan. TTAP

“Dantzak bizitzari gogoz ekiteko arrazoia ematen digu”

AIERT BEOBIDE EGAÑA KOREOGRAFOA

Hamar urte bete ditu donostiarrak zuzentzen duen Haatik dantza konpainiak. Saroben 'Ur bizitan' ikuskizuna prestatu ostean, ostiral honetan Basteron zuzenean ariko dira

Jon Ander Ubeda URNIETA

Gizakiaren eta naturaren arteko oreka zail horretatik abiatuta, "Ur bizitan" lankide askorekin batera ondutako ikuskizuna da. Elkarriketa Sarobe Arte Eszenikoen Gunean eginda dago, muntaiari azken ukituak ematen ari zirenean.

Hamar urte igaro dira Haatik dantza konpainia sortu zenuenetik, eta ospakizun betean zaudete ikuskizun berriarekin. Konpainiak badu iragana, oraina ere bai... Ibilbidea osatu eta gero etorkizuna duen taldea da? Ala funanbulistarena egiten jarraitu beharra dago ogibide honetan?

Azken bi urteotan ikasi dugun bezala, pentsa dezagun egunean egunekoan. Eta, asko jota, aste-betera. Datorrena bere kabuz iritsiko da. Guretzat, atzera begiratze txiki bat egin eta gauzak egin ditugula jabetzeko unea da. Joan gara pixkanaka ikasten lanbide honetan, eta gustura

gaude. Familiak sendo egoten jarraitzen du eta nik uste dut konpainiak etorkizuna baduela, hamar urte horiek bultzada ematen dizutelako. Zertxobait errazten da lana. Dagoeneko nor zaren badakite eta konpainiaren izena aipatzearekin identifikatzeko gai da jendea. Eta horrek lana errazten du asko. Bidean, gainera, lagun asko egin dituzu: programatzaileak, teknikariak, dantzariak, musikariak... Mundu honetan, gainerako guztien artean, barruan gaudela sentitzen gara.

Familia aipatu duzu. Konpainiako kideak ia-ia familiakoak bezala hartzen dituzulako?

Pandemiak gauza txar asko ekarri dizkigu, eta onak ez dakit baten bat. Garai hartan, elkarrekin aritzeko aukera izaten genuenean, dantzari bezala beteta sentitzen ginen. Dantza egiteak lortzen zuen hori. "Eskerrak dantza dugun", esaten genuen, dantzak bizitzari gogoz ekiteko arrazoia ematen digulako. Badira bizitzaz goatzeko beste modu batzuk: bidaiatzea, lagunekin ibiltzea... Gu jabetzen ginen dantzak ematen zigula bizipoza. Horrek gudan familia moduko izaera izatea lortu du. **Sarobe arte eszenikoen gunean gaude. Muntaia berria hemen prestatzen ari zarete. Zenbat ikuskizun prestatu dira hemen, zenbat amets... Eta, era berean, hainbat buruhauste. Ur bizitan muntaia, berez, noiz hasi zen mamitzen? Zure buruan hasiko zen lehenik, ezta?**

Ditxosozko pandemia horretara itzuliko naiz. Hor hasi zen guztia. Berria Aretoa delakoan bideoa egin genuen, garai hartan. Gauza asko egiteko gogoia genuen. Pentsatzen hasi ginen: zer egin genezakeen, non gauden... Pandemia denoi hausnarketa hori egiteko baliagarria izan zitzaigun, non gauden eta zer nahi dugun pentsatzeko. Hausnarketa hartan, duela bi urte, gure arteko erlazio faltatik, ukitze falta horretatik tiraka hasi ginen. Era berean, natura berpizten hasi zen pandemia garaian gizakiok ez genuelako hainbeste kontaminatzen. Horretatik guztiorretatik iritsi ginen Txurriategi baserrira.

Jarrai dezagun Txurriategi baserriaz hitzetan.

Dantza ikuskizunean hizpide dugun gaiaren abiapuntua da. Gure senide batzuek Martuteneko leku zoragarri batean zu-

ten Txurriategi baserria. Donostiako amaiera da, Astigarragara iristen, erreken ondoan dagoen landa eremua. Baserri erraldoia, ederra, lekua izugarria da. Duela gutxi, kanoaz zeharkatu dut Urumea, eta esan dezaket edonori gomendatzeko moduko plana dela. Ez dago turismoak jota, eta zinez ederra da.

Urumeako autobide berrian inguru hura zeharkatzen dugu. Inguru hartan, gainera, norabide ezberdinetan ateratzen diren errepide ugari dago. Scalextric modukoa da. Han behean badiara baratze batzuk. Han bizi zen jendea, baserriak zeuden... Sekulako bizitza zegoen. Gure senide batzuk Txurriategi baserrian jaio ziren. Erreka dena zen eurentzat. Animaliek bertatik edaten zuten, han garbitzen zuten baratzean ateratako guztia... Hernanialdean paper-fabrikak iritsi ziren arte. Industrializazioak hauen bizitza konplikatu zuen, eta baita hirigintza mailako beste erabaki batzuk ere. XV. mendeko baserria zaindu ezinik geratu ziren. Baserri hura utzi eta errekaldean urrunago zegoen Antxume baserrira joan ziren bizitzera. Sei-zazpi urte egin zituzten bertan, hirigintzako teknikariren batek bere bulegotik baserri horren gainean marratxoak egin eta baserria desjabetu zuelako. Hirugarrenean, Astigarragako etxebizitza batera joan ziren bizitzera.

Ez Txurriategi, ezta Antxume ere.

Ez bata, ez bestea. Etxebizitza bat, kale batean. Adinean gora doaz, ondo daudela diote. Baina kontua da ez dela euren erabakia izan. Hortik abiatu zen gure muntaia berria.

Gizakiaren eta naturaren arteko oreka zintzoari buruzko hausnarketa bat dela adierazi duzue.

Hori da. Arazo potoloaren aurrean gaude. Garapen ekonomikoaren gorpila mantentzeko naturaren suntsipena beharrezkoa da? Galdetu diogu geure buruari, errealitate horrekin topo egin dugulako. Bihotzetik eta gertutik heldu diogu, garrantzi handikoa dena guretzat.

Abiapuntu hori gidoi bilakatzeko bidelagun aparta izan duzue, Koldo Izagirre idazlea. Hiriaz hausnarketa egin zuen Parisen bizi naiz poesia liburuan. Ez da edozein bidelagun.

Sorpresaz beteriko bidaia izan da. Txurriategiko testigantzak, emozionalak, jasota genituen,



“Ur bizitan” sorpresaz beteriko bidaia izan da”. TTAP

eta horri guztiari forma emateko idazle batengana jotzeko erabakia hartu genuen. Lagun batzuen bitartez iritsi ginen Koldo Izagirrerenganaino. Aholku eske jo genuen harengana. **Eta bilaketa hor amaitu zen.**

Bilaketa hori bukatu zen, bai. Gure lehen txostena bidali genion, eta bideotxo bat. Berak egingo zuela adierazi zigun. Uste dut une hartan ez ginela kontziente erantzunak zekarrenaz. Badu Donostiako hirigintzari buruzko iritzia, eta, bestalde, geuk jakin gabe bere buruari erronka berria jarri genion. Inoiz ez baitzuen dantza ikuskizun baterako idatzi. Gidoiak, animazioak, eleberrak egin ditu... Bi horien konexioak baiezkotza ematera eraman zuen. Baiezkotza jaso genuenetik, bere lana irakurtzeko gogo biziz geunden. **Koldo Izagirrekin lan egin dugun askoren sentsazio bertsua biziko zenuten, beharbada. Berari eskatutako lana irakurritakoan, alde batetik, asmatu izanaren poza sen-**

**“UR BIZITAN”
BASTERON IKUSI
AHAL IZANGO DA
OSTIRAL HONETAN,
19:00TAN HASITA**

tituko zenuten. Euforia moduko bat, baina, era berean, halako ardura eta erantzukizuna. Berak jarritako langa goian dagoelako. Zuek ere sentitu zenuten?

Bai, bai. Testuaren kalitatea eta narratzeko modua, poesia hori nabarmenduko nuke nik. Mugimenduaren bitartez adierazten den egitasmoa da gurea, eta ondoren, hori guztia mugimenduetara eraman behar genuen. Irakurketa bakoitza erronka bat zen.

Guk esandakoak bertan topatzen genituen, eta berak gehitutako ekarpen gehiago. Oso lan polita izan da. Dagoeneko ez dakit zenbat aldiz irakurri dudana gidoi hori. Espero dut, halakoren batean, liburuxka batean konpartitzeko aukera izatea.

Gidoi hori nola eramaten da dantzara? Prozesu hori zuentzat ere oso zaila izango da.

Erremintak urtez urte aurkitzen joan gara eta hitzarekin lan egitera ohituta gaude. Ez dugu hitzez hitz adierazi behar gidioa,

**“SORTZAILEONTZAT
PISUZKOA DA
ZERK MUGITZEN
GAITUEN
ANTZEMATEA”**

baina gidoiaren hitz batetik abiatzen gara... Oso erraz utzi digu lana. Hiru ekitalditan antolatatu du lana: lehena baserrian kokatzen da, bigarrena gizakirengan eta garapenean kokatzen da eta hirugarrenean oso barrura doa. Oso barrutik aurreko bi pasarte ondoak erakusten digu, oso modu eszenikoan.

Olatz Beobide zure arrebak ere ahotsen lanketan zeresan handia izan du.

Olatzek ere magia egin du. Koldo Izagirrek berak erronka bota zigun: “Zergatik ez duzue errezitatzen emanaldian bertan, zuzenean?”. Dantzarietz ari zen. Koplatxo batzuk prestatu zituen, eta Olatz Beobidek urte bat eman du dantzariarekin lanean. Lotsa galarazi dezaten, ahotsa landu dezaten. Dantzari hitza eta ahotsa gehitu diogu ikuskizun honetan.

Zenbat lagun igoko zarete taula gainera?

Bost dantzari eta hiru musikari egongo dira taula gainean.

**“ERLAZIO FALTATIK,
UKITZE FALTA
HORRETATIK TIRAKA
HASI GINEN MUNTAIA
BERRIA PRESTATZEN”**

Formatu txikiko ikuskizunetan beti faltan igarri izan dugu zuzeneko musika. Pascal Gaignerekin egin genuen lan, 2016an. Hau ere etxekoa da. Gozamina izan da berarekin lan egitea. Musikak toki batera eramaten gaitu. Eta, gure kasuan, geuk jarri genion gaia Pascal Gaigneri. Eta zuzeneko musikariak beharko genituela ere esan genion. Bere konfiantzazko hiru musikari proposatu dizkigu: Iñaki Diegez akordeoilaria, eza gutzen ez duenarentzat, Cirque du Soleil konpainian ibilitakoa da; Javier Perez Pascalekin soinu banda askotan parte hartu duen piano jolea da; eta hirugarrena, perkusioan aritzen dena, Manu Gaigne da. Pascalen eta Olatzen semea da, nire iloba.

Familia, zentzurik zabalenean. Ez bakarrik dantzariengatik aipatu duzunagatik, baizik eta kide batzuk familiakoak dituzulako.

Pandemiagatik egin ezin izan ditugun familiako bazkari horiengatik guztiengatik, emanaldiaren ondoren elkarrekin afaltzeko aukera dugu orain.

Konpainia batean, normalean, protagonismo guztia zuzendariak hartu ohi du. Baina nabarmendu beharrekoa da dantzarien lana. Amaiur Luluaga, Iñigo Etxeberria, Irati Sorondo, Jon Arsuaga, Nagore Zabala... Luxua da zurekiko erakusten duten leialtasun hori.

Horieta asko niri ikasleak izan dira, eta orain, nire ondoan daude. Urte hauetan guztietan iraun badugu eta horrelako salta batean sartzeko ausardia izan badut –edo badugu–, haiei esker da, haiek hor daudelako. Dantzari izugarriak dira, konpainian sartu zirenetik garapen handia izan dute.

Arteak beti zerbait iradoki behar du, aldarrikatu behar du.

Ez dut uste sortzaile guztiek gizartearen hausnarketa bat egin behar dutenik, baina uste dut lan guztiek badutela arrazoi edo sorburu bat. Eta horrek eramaten zaitu hausnarketa egitera. Emakumeaz, gure historiaz... Zein lan egin eta zer sortu nahi dugun aukeratzeko zortea dugunontzat pisuzkoa da zerk mugitzen gaituen antzematea. Mugitzen gaituzte, edonor bezala, gure gizartearen gertatzen diren gauzek, ikusten ditugun problemek... Dantzaren bidez horri buruz hitz egitea oso kanal interesgarria da. Sentitzeko beste modu bat da.

HITZORDUAK

ASTEARTE EGUERDIA BAINO LEHEN IGORRI HITZORDUAK. Tel.: 943 300 732 / andoain@aiurri.eus

OSTEGUNA 19

URNIETA Ikus-entzunezkoa

Dorje Lakpa eta Huayhuash trekking-eko emanaldiak, Zanpatuzen eskutik. Iker Madoz nafarrak eta Mikel Inoriza arabarrak eta Oiarzabal eta Urbistondo urnietarrek parte hartuko dute.

19:00, *Sarobe*.

ANDOAIN Erakusketa

Kanpezu 50 urte, La Salle Berrozpe ikastetxeko kanpaldiari buruzkoa.

Azken eguna: *Maiatzak 28*.

Bastero.

OSTIRALA 20

URNIETA Ikastaroa

Zilegi eskola: hitanoa ikasteko eta hobetzeko tailerra, Rosa Zubeldiaren eskutik.

16:00-18:00, *AEK euskaltegia*.

ANDOAIN Tailerra

Amets atzemaileen tailerra.

17:30, *Gazte Lokala*.

ANDOAIN Dantza

"Ur bizitan" ikuskizuna, Haatik konpainiaren eskutik. Elkarriketa 12-13. orrialdeetan.

19:00, *Bastero*.

LARUNBATA 21

ANDOAIN Kontzertua

DJ saioak eta rap musikariaren emanaldiak, Gipuzkoan Gazte Tour egitasmoaren eskutik. Informazio gehiago 15. orrialdean.

18:30, *Bastero*.

ASTELEHENA 23

ANDOAIN Jardunaldiak

Haurren babes integralari buruzko legea praktikan jartzea administrazioetan, eskoletan eta kirol-klubetan aztergai izango dute. Egitaraua 16. orrialdean.

10:00-13:00, *Bastero*.

URNIETA Odol-emaileak

Hitzordua aurretik hartu behar da, 943 007 885 telefonora deituta.

16:30-20:30, *Gaztelekua*.



Rosa Zubeldia, lehen planoan.

URNIETA Zilegi eskola

Hitanoa ikasteko eta hobetzeko aukera dago Urnietako Zilegi eskolan, Rosa Zubeldiaren eskutik. Sendabelarrak ezagutzeko tailerra eta defentsa pertsonalekoa, eskainiko dituzten tailerren artean.

Maiatzaren 20tik aurrera. AEK Euskaltegia.

ASTEARTEA 24

URNIETA Ikastaroa

Zilegi eskola: sendabelarrak ezagutzeko tailerra. 10:00-12:00, *AEK euskaltegia*.

ANDOAIN Aisialdia

Parketarrak egitasmoa, aisialdia euskaraz igarotzeko egitasmoa.

17:15-18:15, *Goikoplaza*.

ASTEAZKENA 25

URNIETA Ikastaroa

Zilegi eskola: defentsa pertsonaleko tailerra emango du Manu Iglesiasek.

17:45-19:45, *AEK euskaltegia*.

ANDOAIN Aisialdia

Parketarrak egitasmoa, aisialdia euskaraz igarotzeko egitasmoa.

17:15-18:15, *Zumea plaza*.

ANDOAIN Laguntza

Alokairurako laguntza, 18-30 urteko herrikideentzat.

Maiatzaren 25etik aurrera.

URNIETA Hitzaldia

Ruben Gelbentzu eta Jon Lizarribarren aldeko ekimen-sorta. Errepresioari buruzko hitzaldia.

19:00, *Lekaio*.

OSTEGUNA 26

URNIETA Elkartasun eguna

Ruben Gelbentzu eta Jon Lizarribarren aldeko ekimena.

18:00 Trikipoteoa, Matxo tabernatik.

19:00 Erremonte jaialdia Galarretan.

Elkartasun mokadu musikatua.

Urnieta, Hernaniko Galarreta.

OSTIRALA 27

ANDOAIN Ate irekiera

Euskara ikasi nahi dutenentzat. Izen ematea: andoain@ae.eus.

10:00, 17:00. *AEK euskaltegia*.

ANDOAIN Dantza

Basotik itsasora, Dantzaz.

19:00, *Bastero*.

LARUNBATA 28

ANDOAIN Tailerra

Eskalada tailerra.

Informazioa: Gazte Lokala.

IGANDEA 29

ANDOAIN Dantza

Urki dantza taldearen ikuskizuna.

12:00, *Bastero*.

ZINEMA

**ANDOAIN****BASTERO****Mentes maravillosas**

Ig, 22. 19:30.

Astl, 23. 19:30, 22:00.

El secreto de Vicky

Ig, 22. 17:00.

Cinco lobitos


Lar, 28. 19:30, 22:00.

Ig, 29. 19:30.

Astl, 30. 19:30, 22:00.

URNIETA**LEKAI****Una razon brillante**

Ostg, 19. 18:30.



SINOPSIS

**MENTES MARAVILLOSAS**

Zuzendaria: Bernard Campan. **Aktoreak:** Bernard Campan, Maryline Canto, Laëtitia Eido, Alexandre Jollien, Tiphaine Daviot...

Herrialdea: Frantzia. **Generoa:** Komedia. **Iraupena:** 92 minutu.

Louisen eta Igorren abenturak

Louisek ehorztetxe bat zuzentzen du. Kasualitatez, egun batean Igorrekin gurutzatzen da. Pertsona argia gorputz elbarrian. Igorrek barazki ekologikoak banatzen

ditu astialdia Sokrates, Nietzsche eta Spinoza filosofoen idatziak irakurtzen pasatzen duen bitartean. Elkarrekin bidaia bat hasiko dute hil-autoan.

**UNA RAZON BRILLANTE (LE BRIO)**

Zuzendaria: Yvan Attal. **Herrialdea:** Frantzia. **Aktoreak:** Daniel Auteuil, Camélia Jordana, Jacques Brel, Serge Gainsbourg, Romain Gary, Yvonne Gradelet,.... **Iraupena:** 95 minutu. **Hizkuntza:** Gaztelania. **Urtea:** 2017.

Unibertsitatea ardatz duen komedia

Neila Salah Pariseko neska gazte bat da, abokatua izatea amesten duena. Zuzenbide

fakultate garrantzitsuenean matrikulatu da, eta halako batean irakaslearekin liskarra du.



Andoingo Udak herritarren parte hartzea eskatu du. AIURRI

Genero-ikuspegitik diagnostikoa abiaraziko du Andoingo Udak

Saioak asteartero izango dira Urigain kultura etxean, maiatzaren 24an hasita. Saio guztiak 18:00tan dira

Erredakzioa ANDOAIN

Berdintasun Sailak partaidetza-prozesu bat jarriko du abian. Petri Romero Berdintasuneko zinegotziak azaldu duenez, "parte-hartze prozesu horren helburua hiri-ingurunea berrikustea da, batez ere emakumeen segurtasunik ezaren ikuspegitik". Berdintasun Saitetik adierazi dutenez, "prozesu honetan ez ditugu hirigintzako adituak behar, Andoainen bizitzeko esperientzia duten pertsonak baizik. Beraz, saioak beren auzoetako kaleetan bizi diren edo orduak igarotzen dituzten emakumei zuzenduta daude, haien adina, jatorria edo bizi-baldintzak edozein direla ere". Gizonezkoak ere parte hartzera gonbidatuta daude. Zaintza zerbitzua eskainiko da, saio bakoitzaren aurreko asteartea baino lehen eskatu beharko dena 943 300 830 edo 943 300 380 telefonoetara deituz.

Lau saio Urigainen

- Maiatzak 24, asteartea. 18:00, Urigain. Udalerriaren azterketa, segurtasunaren, irisgarritasunaren eta mugikortasunaren ikuspegietatik.
- Maiatzak 31, asteartea. 18:00, Urigain. Azterketa, ongizatean, elkarbizitzan, zainketetan eta kontziliazioan oinarritua.
- Ekainak 7, asteartea. 18:00, Urigain. Herriko hainbat espazio eta eraikin publikoen diagnostiko osoa.
- Ekainak 14, asteartea. 18:00, Urigain. Andoainen garatuko den proiektu garrantzitsu bati ekarpenak Genero-Ikuspegitik.

"PROZESU HONETAN EZ DITUGU HIRIGINTZAKO ADITUAK BEHAR"

BERDINTASUN SAILA

Matrikulazioa zabalik Lourdes Iriondo Musika Eskolan

Musika tailerra, musika hizkuntza... Lourdes Iriondo Musika Eskolan 2022-2023 ikasturterako matrikulazioa egiteko epea zabalik dago, datorren maiatzaren 30era arte. Matrikularen inprimakia bete eta lourdesiriondo@urnieta.eus helbidera bidali behar da. Informazio gehiago Lekaio kultur etxean: 943 00 80 33.

Argazki eta marrazki lehiaketa antolatu du Hogar Extremeñok

Hogar Extremeñoren mikrokontaketen, argazkien eta marrazketen lehiaketa martxan da. Gazte eta helduen mailakoa da. Ekainaren 4a lanak aurkezteko azken eguna da. Honako helbidera: heconcursosonline@gmail.com. Informazio gehiago: helemiajondeloscastuos@gmail.com helbidean.



Donostiako Somport pubean etxeko DJ gisa aritzen da DJ Ander. GAZTETOUR

DJ Ander eta DJ Leinup herrikideen aurrean ariko dira

Andoingo bi disko jartzaileak zuzenean ariko dira Basteron, Lainarekin eta Easy-S rapero ezagunarekin

Erredakzioa ANDOAIN

Gipuzkoako Gazte Tour ekimena Andoainera itzuliko da, bigarren urtez jarraian. Gipuzkoako Foru Aldundiaren programa bat da, musikan eta arte eszenikoetan ekimen berritzaileak sustatzea helburu duena. Kontzertua 18:30ean hasiko da Basteron, eta sarreraren prezioa 4 euroko da. Emanaldian musika garaikidea entzuteko aukera izango da, batez ere gazteen artean bogan dagoena.

Andoingo DJak

Andoingo bi ordezkari ariko dira: DJ Ander eta DJ Leinup. Aldundiak zabaldu duen oharren arabera, "DJ Ander Donostiako Somport pubean etxeko DJ gisa aritu ohi da. Girotzeko musika komertziala, reggaetoia eta urban generoak txertatu ohi ditu. DJ Leinup, bestalde, jartista autodidakta da eta urban estiloak eta elektrotika uztartzea gogoko du".




DJ Leinup andoaindarra. GAZTETOUR

Easy-S rapero ezaguna, Malagatik Andoainera

Malagako Space Hammurabi kolektiboko raperoa kartelburu izango da: "Hainbat single argitaratu ditu eta milioika ikustaldi pilatu ditu interneten, hala nola *La placita*. Rapari ikuspegi berri bat ematea lortu du, herri musikaren moldeei eta rap tradizionalaren kanonei izkin egin eta sormen bide berriak urratuz.

Emanaldian ere Laina abeslari irundarra ariko da. Hastapenetan den artista, raparen eragin handiarekin eta poesia ukituko proposamena ekarriko duena. 2020an kaleratu zuen lehen singlea eta gaur egun disko berrian ari da lanean.

EASY-S RAPERO EZAGUNA EMANALDIKO KARTELBURU IZANGO DA



Easy-S raperoa. GAZTETOUR

ZORION AGURRAK



ANDOAIN
Zorionak Perutxi
Zorionak Perutxi
Pottolo, apirilaren
26an 8garren
urtebetetzea ospatu
genuen, txapeldun!
Muxuak, etxekoak



ANDOAIN
Zorionak Natxo
Zorionak Natxo
morroko!
Maiatzaren 10ean
4 urte bete
zenituen txapeldun!
Etxekoak.



URNIETA
Zorionak aitona Angel eta Paul
Maiatzaren 7an Paulen urtebetetzea izan zen eta 14an aitona urtebetetzea ospatuko dugu. Zorionak bioi eta besarkada estu bat etxekoan partez.



ANDOAIN
Josu Rabadan Larrea
Gure xomorro maiteari, mila muxu bidali nahi diogu. Ekainaren 6an 3 urte beteko ditu.

MERKATU TXIKIA

MINTZALAGUNA

Andoingo emakume pentsioduna hizkuntza laguntza edo mintz-lagun bila dabil: Gaztelaniaz eta ingelesez / danesez aritzeko. Pertsona irekia, eta jendea ezagutzeko gogoarekin: reflexologist45@yahoo.co.uk

ENPLEGUA

Pertsona euskaldun bat behar dugu Lanbroa Tabernan lan egiteko. Interesatuak kontaktuan jarri lanbroataverna1@gmail.com-en edo 659 039 922 telefonora deituta.

ODOL-EMAILEAK



HURRENGO HITZORDUAK

Maiatzak 23, astelehena.

16:30-20:30. Urnietan, Gaztelekun. Hitzordua aurretik, 943 007 885.

Haurren tratu onarekin konprometitzea helburu

Andoaingo Udalak, Hezi Zerb elkarteak eta Educo Fundazioak landutako prozesua aurkeztu dute. Andoaingo etxebizitza guztietara iritsiko da gida bat. Udalak Haurren Tratu Onarekin Konprometitutako Udalerrri izan nahi du

Erredakzioa ANDOAIN

Apirilean, ezohiko osoko bilkuran udalerriko ikastetxeetako hurrek "Haurtzaroaren Tratu Ona"ren aldeko Andoaingo Tokiko Plana aurkeztu zuten. Aste honetan Andoaingo Udalak tratu onen aldeko gida argitara eman du, etxe guztietako postontzietan banatuko dena. "Familia guztiek ezagutzea eta praktikan jartzea nahi dugulako", nabarmendu zuen Maider Lainez alkatea. Haur eta nerabeen eskubideak kontutan har daitezen, "plan honek haurren eta nerabeen eskubideak jartzen ditu gure tokiko politiken erdigunean, ahots propioa izan dezaten eta hartzen



Ibai Narbarte Heziz-eko ordezkaria, Maider Lainez alkatea eta Ana Sanz Gizarte Zerbitzu eta teknikaria. AIURRI

ditugun erabakietan modu aktiboan parte har dezaten. Izan ere, erronka askori egin behar diete aurre gaur egun: pobrezia, desberdintasunak, indakeria, diskriminazioa, internet eta sare sozialak edo klima-aldaketa, besteak beste. Horregatik, garrantzitsua da plan hau etxe guztietara iristea eta ezaguna izatea, familiak eta Udala eskutik helduta joan gaitezen".



Herrian banatuko duten eskuorria. UDALA

Jardunaldiak Basteron, astelehenean

- 10:00** Aurkezpena: Maider Lainez alkatea, Xabier Lertxundi Hernaniko alkatea eta Hezi Zerb.
- 10:20** Babeserako lege organikoa: Ernesto Gasco, haur pobrezia-aren aurkako goi komisarioa.
- 10:40** Jardunaldiaren esparrua: Guiomar Todoo, Educo.
- 10:50** Estatuko haurren aurkako indarkeriari buruzko azterlana: UNICEF eta Dirdira.
- 11:10** Ikastetxeak eta tratu onak haurtzaroan.
- 11:30** Andoain, Hernani eta Martutenen tokiko planak. Esperientzien aurkezpena.
- 12:50** Amaiera.

Erronka berriei aurre egiteko, aldatu beharra dago. Iritsi da **TicketBAI**.

Enpresek aurrera egiten dutenean, Gipuzkoak aurrera egiten du.

Gipuzkoako Foru Aldundia
Euzko Legebiltzariaren
Ezker Batua

ETORKIZUNA
ORAIN
Ez Futurari

TicketBAI
GIPUZKOAN

gipuzkoa.eus/ticketbai